

Iñaki Martínez de Luna

## Gainbehera ala egokiera?

**A**bertzaletasunaren gainbehera hasi ote da? Susmo hori pizten du, bederen, Eusko Jaurlaritzak kaleratu zuen *Gazteen Argazkiak* bildumaren 14. zenbakiak (2011ko otsaila). Izan ere, inkestaren bidez elkarrizketatu direnei euren definizio ideologikoa eskatu zaienean, hamar puntuko beherakada agertzen da 30 urte edo gehiago dutenengandik 15-29 urte bitarteko taldera: %28tik %18ra, hain zuzen ere. Areago, 15-21 urte bitarteko ei erreparatuz gero, datu hori %14 da. Zer dela-eta? Euskal Herria ipar duen ideologia lausotzen ari ote?

Egia da, galdera horren diseinua eztabaidagarria izan daitekeela, baina datua hor dago eta jakitun gaude aldaketak abiatzen direnean astiro-astiro eta gazteengan hasi ohi direla gautzatzen.

Jakina da arrazoi asko dagoela herritarrak politikariekin –abertzaleekin ere bai– nazkatuta egon daitezela eta, hortaz, ikerlan horretan *Apolitiko* sentitzeak adinean behera egin ahala duen bilakaera ez da harriztekoa: %19tik, helduengan, %30era igotzen da, gazteengan. Hori ez ezik, aldaketa sakonagoa ere ba omen da datuetan. Izan ere, abertzaletasunarekiko atxikimendua bezala, adinarekin batera *Sozialista* sentitzea ere beherantz doa (%17tik %11ra).

Aurreko mendeetan sortu eta hedatu ziren ideologiaren gainbehera ote? Baliteke, berriagoak diren beste auto-definizio ideologiko batzuek gazte jendearengan gora egiten dutelako: *Liberalak*, %14tik %21era; *Ekologistak*, %14tik %19ra; *Feministak*, %5etik %9ra. Batek daki *Liberalismo* horrekin zer ulertzen duten gazteek. Baina, baliteke pertsonaren askatasuna gorai patzearen eta gobernuen interbentzionismoa mugatzearen adiera izatea, azken finean lelo horiek post-modernotasunarekin lerrotatuta baitaude. *Liberalismoa*ren ulerkerak hori izan ala ez, aipatutako diren beste bi ideologiak ere hedatzen eta gailentzen ari: ekologismoa eta feminismoa.

Kasualitate hutsa ote iragan hurbilean jaun



ALEX LARRETXI

eta jabe ziren ideologiak beherantz egitea eta sortu berriek, aldiz, gorantz? Ala, aitzitik, euskal gizartean gertatzen ari diren hainbat sakoneko aldaketaren adierazleak dira?

Aldaketaren hipotesia zuzena balitz, ideologiaren bilakaera hori *Euskal Herri Egitasmoaren* kaltetan litzateke. Izan ere, burujabetzarik eta berariazko egituraketa juridiko-administratiborik gabeko herria izanik,

euskal lurrak eta herritarrak lokarri faltan daude. Zerk batzen du lurralde honetako herritar multzo zabal bat, ideologia abertzalea ez bada? Ekonomiak ez, “kapitalak aberririk ez du”ela sinisten badugu; are gutxiago globalizazioaren garaiotan. Euskal kultura? Euskal Herriko berezko kulturazalduaren erreparatuta zalan-tzak sortzen zaizkit; areago *fusión* estiloa modan dagoen unean bertan. Teorikoki, euskarak izan beharko luke lokarririk indartsuena euskararen herrian, baina gaur egun ez da, herritarren proportziorik handiena ez baitu bere baitan biltzen.

Abertzaletasuna asmakizun historikoa da eta, hortaz, aro berriek atzean utzi beharko dute inoiz. Hori orain gertatzea ez litzateke horren kezkarri izango, sasoi berrietara hobeto egokitzen den beste lokarriren bat sortuko balitz.

Horregatik, abertzaletasunaren gainbeheraren hipotesia zuzena balitz eta historiaren oraingo haizeak naziotasunaren eta abertzaletasunaren kontrakoak balira, komunitate-formulazio berriak asmatu beharko lirateke. *Euskal Herri Egitasmoa* beste era batera ulertu eta sendotu beharko litzateke, horretarako euskarra helduleku hartuta, dudarik gabe; baina beste zenbait lokarriren laguntzaz ere. Aro post-moderno honetan gizarte-loturak gero eta ahulagoak diren arren, euskaldunok oraindik galdu ez ditugun komunitate-sena eta horren “erreferentzialtasun sinbolikoak” indartu beharko lirateke; edo, agian, beste berri batzuk sortu. Badaezpada, hobe genuke erne egotea! ■

Aro post-moderno honetan  
gizarte-loturak gero eta ahulagoak  
diren arren, euskaldunok oraindik  
galdu ez ditugun komunitate-sena eta  
horren “erreferentzialtasun sinbolikoak”  
indartu beharko lirateke; edo, agian,  
beste berri batzuk sortu. Badaezpada,  
hobe genuke erne egotea!